


## HERNANIKO EA, PSE-EE ETA EAJ-REN HITZARMENA

# “Zinegotzi batzuek babesar behar-beharrezkoa dute”

■ “Eraso eta beldurrarazteko ekintzek segi egiten dute” ■ Hernaniar askok ekintza zehatzak eskatu omen dizkiete “bizitza demokratikoa normalizatzerara iristeko”



EA-EAJ-tako zinegotziak: Joxan Rekondo, Jose Ramon Lasarte, Juan Crespo eta Iñaki Arratibel

EA, PSN-EE eta EAJ-k adostu duten hitzarmenaren berri eman dute, prentsa ohar baten bidez. Indarkeriak oraindik hortxe jarraitzen duela irizten diote, eta ez dute nahi erasotu eta biktima gehiago. “Giza harreman giroa konfidantzarik eta ziurtasunik gabekoa da hainbat sektore sozial eta politikotan”. Egoera honetan premiazkoa omen da lanean jarraitzea “pake eta askatasun bizilekua eskuratzeko”. □

### EA, PSE-EE eta EAJ-ren arteko hitzarmena

- 1.- Hernaniarren arteko harremanen oinarritzko printzipiotzat errespeto, askatasun eta elkartzuna berreskuratzeko.
- 2.- Ezberdin pentsatzen duenaren kontrako indarkeria erabiltzen eta onesten dutenek morrontzapean eduki nahi gaituzte: pentsatzeko eta adierazteko askatasuna nahi dugu.
- 3.- Egitasmo guztiak eduki behar dituzte aukera publiko berdinak hernaniarren “bat etortze” gogozkoa bereganatzeko.
- 4.- Indarkeria eta erasoaren aurrean era bateratuan erantzuteko konpromisoa hartu dugu.
- 5.- Gure elkartzuna behar duten herriko erasotutako babestu egingo ditugu.
- 6.- Iritzi hauen inguruan herri-erantzuna bultzatuko dugu.
- 7.- Gogotik bultzatuko dugu irizpide hauekin bat datozkeen guztion arteko elkarriketa.

## ■ GIMNASIA ERRITMIKOA

### Jaione Tejedor Espainiako Txapelketan

■ Asteburu honetan Malagan jokatu du ■ Finalera pasatzeko aukerak baditu

■ **KRONIKA:** Zein helburu dituzue Espainiako Txapelketan?


JAIONE TEJEDOR: Finalera pasatzea da gure helburua. Berrogei taldeetatik zortzi bakarrik pasako dira, baina, aukerak baditugu.

■ Zein entrenamendu egiten duzu?

Normalean astean 4-5 eguntan entrenatzen dugu; konpetizioen bat inguratzen denean, berriz, egunero. Zaindu ere asko zaintzen gara, ezin dugu afaltzera kanpora atera...

■ Ba al duzue Hernaniko taldea ateratzeko asmorik?

Hernanin eskolartekoan dago maila handia. Hortik aurrera ez dago talderik eta ez dirudi oraindik behintzat asmorik dagoenik. □



Jaione Tejedor



ANDONI OLAZABAL  
Aseguru agentea

Juan de Urbieto 10, behea  
Tel.: 943 33 03 60  
Faxa: 943 55 04 00  
20120 HERNANI



**MUEBLES HERNANI**

Esposizio aldaketagatik,  
**Beharpen bereziak.**

HERNANI ALTZARIAK, Gartzia Goldaraz 8 HERNANI

## UDALZAINGOA

### Elkano kalea itxita gaur

Urumea ikastolatik Larramendi kalerako tarte hori itxia egongo da gaur, fibra optikoa pasatzeko kalea zulatu egingo dutelako. Sandiusterra eta Izpizua kaleak zabalik egongo dira.

### Behemendiko azoka larubatean Plaza Berrin

■ Inguruko dozena bat herrietako baserriko produktak saltzen dira ■ Goizetik eguerdira arte izangoda.



Gazta erosten batzuek, eta besteak erosi edo ez pentsatzen.

### 49ko kintoek bazkaria dute datorren igandean

■ Aurten Urnietan egingo dituzte meza eta bazkaria.

SOLDADUSKA 1949an egin zutenek (Francok bere burua Hernaniko ohorezko alkate izendatu zuen urte berean) Urnietako Oianume jatetxean dute kinto bazkaria. Urtero bezala, Amabirjina egunaren hurrengo igandean ospatuko dute.

SALESIANOETAN MEZA 12:45etan, hildako kintoen aldeko meza izango da Salesianoetako Pake-Leku kapilan. Ondoren, ordubetan bazkaria.

Dagoeneko 110 inguru joatekoak dira. Izenik eman ez duena dijoala bertara. □

## ASTEBURUKO ZINEA BITERIN

### ‘Road trip’

Helduentzako. Ostirala: 19:30-22:30. Larunbata: 17:00-19:30-22:30. Igandea: 17:00-19:30.

### ‘Los Picapiedra en viva Rock Vegas’

Umeentzako. Ostirala, larunbat eta igandean: 17:00.

Skoda Octavia. Bizitza osoa aurretik.



OCTAVIA bat 1.995.000 ptatik.\* (11.990,19 euro\*)  
\*Penintsula eta Balearretako gomendatutako prezioa Skoda Octavia 16V Classic Garraio eta zergak barne. 1 euro=166,386 pta.

MENABI

Xingurri pasealekua, 26 Herrera auzoa DONOSTIA Tel. 943-40 42 43

DESOBEDIENTZIA ZIBILAZ MAHAI INGURUA

## “Beti izan da Euskal Herrian desobedientzia zibila”

- 5 hizlari eta 60 bat entzule elkartu ziren, ostegunean, Biteri kultur etxean.
- Orain gaiak sona handia hartu omen du, Garzonen operazioa dela-eta.

KONSTITUZIO egunean lan egitearen aldeko taldeak antolatuta mahai ingurua izan zen, ostegunean. Gaia: *Desobedientzia zibilaren bidetik Euskal Herria eraikiz*. Hizlariak: Arrate Arozaba (Bai Euskal Herriari), Patxi Azparren (Autodeterminazioaren biltzarra eta Herria Mugi), Iñaki Etxeleku (DEMOAK), Xabier Alduntzin (Besaide) eta Joxe Arrieta (udaleko langileen komitea).

### ZER DA?

Desobedientzia zibila honela definitu zuten bost hizlariak atzoko mahai inguruan:

- Bidezkoa den zerbaiten alde aritzea, legez kontrakoa bada ere.
- Jendaurrekoa eta kolektiboa izatea.
- Jendeak bere borondatez egitea; behartuta ez izatea, alegia.
- Biolentziarik gabea izatea.



Hizlariak eta moderatzailea, Biteriko areto nagusian.

### TALDE BAKOITZA

Amaieran talde bakoitzak bere jardueren berri eman zuen Desobedientzia zibila orain den ahotan ibiltzearen arrazoia Garzonen azken operazioak omen du; baina, desobedientzia aspaldi praktikatu omen da Euskal

Herrian: ikastolak direla...

### IRRATIAN ENTZUNGA

Hernaniko Ahotsa irratiak mahai ingurua grabatu zuen. Zatiarik garrantzitsuenak datorren astelehenean emango ditu, arratsaldeko 16:00etatik aurrera. (FM 99.2). □

## Autoen abaila mantsozteko, kaleetan ‘koskak’ jartzen ari dira

- Jendeak eskatu egin ditu
- Jarritakoez gain zenbait leku aztertzen ari dira.

AUTOAK abaila haundian pasatzen dira Hernaniko kaleetan barrena; erremedioa oraintzen ari dira jartzen: bideetako baden edo koskak. Kasu gehienetan bizilagunek berek eskatu dituzte gainera, gertatu litekeenaren beldurrez-edo.

### AUZO ASKOTAN

Floridan 4 jarri dituzte, Lizeagan 1, Latxunben beste 1, Karabelen 3, Osiñagan 2 eta Eziago poligonoan beste 2. Hala ere ez omen dute oraindik bukatu eta leku gehiagotan jartzekoak dira.

Beraz badakizue, kontuz ibili Hernanin barrena; *fitipaldiak* bereziki.



Badenak jartzen ari den hirukoa; bakoitza bere lanean.

### IRAGARKI MERKEAK

- Furgoneta bat daukat saltzeko: Zazpi eserlekuko Mercedes Vito bat da; hiru urte eta erdi ditu.

☎ 943-332937



Ereñotzu auzoa, 68-69 (Fagollaga) Tel. 943. 55 00 31 - HERNANI

  
mikel armendariz  
proiektu eta instalazio  
elektrikoak  
Tel. 649 846 422  
HERNANI

## HITZ BITAN



Karabelgo aita semeak, Jesusen jaiotzan.

### ✓ KARABEL AUZO

**Eguberritako jaiotza jarri dute.** Karabelgo auzo elkarateak Jesusen jaiotza jarri du Balantxa barreneko berdegunean. Jaiotza Luis Telleriak diseinatu du (Axeri dantza diseinatu zuen berak); gero, auzokoak ibili dira piezak egin eta pintatzen. Aurtengoa lehenengo aldia da, eta nola gelditu den ikusita, auzokoak oso gustura gelditu dira.

### ✓ TXANTXANGORRI ELKARTEA

**25 ehiztari, igandeko Ehiza Txapelketan.** Epe-lerreka eta Uxokaerrek arituko dira herriko 25 ehiztari 3 ordu eta erdian zeinek pieza gehiago botako. Faisana, oilagorra eta eperra dira bota litezkeenak. Hasi: 10:00etan; baina, 09:00etarako kontrolean egon behar da. Bukatu: 13:30etan. Enpate kasuan, ehiza kontrolera aurrena ekarri duena.

### ✓ 3/4 HERRI EKIMENA

**Arnaiz, Lujanbio eta Beltzaren askatasuna eskatzeko kontzentrazioak.** Atzo arratsaldeko zazpitan Hiru-laurden plataformak antolatuta, 50-60 lagun inguru bildu zen Plaza Berrin. Orain, hamabostean behin herriko talde batek hartzen du pankarta. Atzokoan Iraulio Pantalonek eutsi zion.



Hegohaizen ondorengo euripean egin zen atzo inulabarreko kontzentrazioa.

<b>A G E N D A</b>	❖ <b>ERAKUSKETA</b> Alberto Elosegiren argazkiak. Txema tabernan. Vietnam-i buruzko argazki erakusketa Zumardi jatetxean.	❖ <b>MUSIKA</b> 
	❖ <b>ZINEA</b> Road trip Biterin, 19:30-22:30	<i>Akelarre</i> taldea Oialumen, 20:00etan.

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

- ☎ Taxiak: 943 550093
- ☎ Udaltzaingoa: 943 333288
- ☎ DYA: 943 464622
- ☎ Autobusak: 943 556662
- ☎ Anbulatorioa: 943 557750

#### ☎ FARMAZIAK

- ☎ Egunez: Bulnes Etxeberri, ☎ 943 557738
- ☎ Gaez: Gil Lasarte. Nagusia, 24 ☎ 943 361529



Laguntzaile:

**HERNANIKO UDALA**

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuak